
UEU

URTEKO TXOSTENA

2021





UEU

URTEKO TXOSTENA

2021



SARRERA	7
Pandemiak baldintzatutako urtea	7
Euskal Unibertsitatearen Bidean	7
Zuzendaritza berritu dugu	8
Markeskoaren hitzarmena luzatu dugu	8
UEUren 50. urteurrena	8
Humanitate Digitalen Ierroa indartzen	9
Sailburuen Biltzarra	9
Jose Ramon Etxebarria, Lekuona sariduna	9
 JARDUERA AKADEMIKOA	 11
Ikasturtearen hasiera-ekitaldia	11
Ikasgela birtuala berritu dugu	11
Eskaintza propioa	12
Udaberriko eta udazkeneko ikastaroak	12
Udako Ikastaroak #UI49 #ElkarEkin	12
Tartarika zikloa	12
Hitzartuak	13
Prest_gara	13
Nafarroako Unibertsitate Berrikuntzako eta	
Eraldaketa Digitaleko Departamentuarekin elkarlanean	13
Oihaneder Euskararen Etxearekin elkarlanean	13
Ikerketa 2021 Gasteizen	14
Unibertsitate-mailako prestakuntza masterra	15
 JARDUNALDIAK	 15
Graduondokoak	15
Berezko tituluak	15
Aditu-tituluak	15
Ikasleen profila	16
Ikerketa	16
 ARGITALPENGINTZA	 19
14 Liburu berri argitaratu ditugu	19
Uztaro aldizkaria	19
Aldiri aldizkaria	20
Osagaiz aldizkaria	20
Unibertsitate-mailako ikasmaterialak	
sustatzeko deialdia eta diru-poltsak	20
Buruxkak liburutegi digitala	21
Sarako azokan egon gara	21
Durangoko azoka #56da	21
 INFORMAZIO- & KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIAK	 23
Tesiker	23
Artizarra sare soziala, komunitatea trinkotzen	23
Unibertsitatea.Net ataria	24
Inguma datu-basea	24



SARRERA

PANDEMIAK BALDINTZATUTAKO URTEA

Urte hau ere pandemiak baldintzatu du eta gure eskaintza COVID19ari egokiturikoa izan da. Hala ere, modu egokian aurre egin diogu urte zail honi.

EUSKAL UNIBERTSITATEAREN BIDEAN

2021/2022 ikasturtean **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterraren** bigarren edizioa egin dugu UPV/EHUren ikastegi atxiki bezala (GOI), online unibertsitate-ikasketak euskaraz sustatzeko asmoz. Euskaraz izan da (ingelesezko hautazko batzuekin) eta eskolak ikasgela birtualaren bitartez eskaintzen ari gara hiru espezialitate hauetan: *Natur Zientziak eta Matematika, Giza eta Gizarte Zientziak, eta Hizkuntza eta Literatura*. 132 ikaslek parte hartu dute.

Era berean, hausnarketa estrategikoaren barruan, *“Online irakaskuntzaren testuinguruak eta horietarako eredu pedagogikoak”* web mintegia egin dugu. Euskal Herriko unibertsitate desberdinetako ordezkariak parte hartu dute. Aurrez aurreko testuinguruetan teknologia-erabilera altua ikusten

dugu sarritan; e-learning eredu puruetan ere une sinkronoak eta asinkronoak izan ohi dira; testuinguru hibridoak ere ugariak dira, askotan birtualitatearen eta presentzialitatearen arteko mugak guztiz lausotzen direlarik; presentzialitate ez-jarraitua edo aldizkakoa gero eta gehiagotan aipatzen da... Ondorioz, eredu teknopedagogikoen garrantzia handia da, horiei esker izango baitugu testuinguru-aniztasun horretako funtsezko hainbat alderdi aztertu eta interpretatzeko modua: ikastaroen diseinu didaktikoa, interakzioaren kudeaketa, e-jarduerak edo ebaluaziorako prozedurak, besteak beste.

Azkenik, UOCek argitaratu duen *Decálogo para la mejora de la docencia online* liburua euskaratu dugu: **Online-irakaskuntza hobetzeko dekalogo**. Liburu horretan, online hezkuntza hobetzeko eta etorkizuneko konfinamendu oso zein partzialtako testuinguru presentzial ez-jarraituetan kontuan hartzeko zenbait proposamen aurkezten dira. Laguntzarako tresna bat eskaini nahi diegu online hezkuntzaren indar eraldatzailea ahalik eta gehien baliatu nahi edo behar duten hezkuntza-profesionalei.



ZUZENDARITZA BERRITU DUGU

Martxoan UEUK Batzar Nagusia egin du Eibarko Ikastetxe Nagusian. Bertan, Talde Eragileak aurkeztutako 2020ko balorazioa eta 2021eko egitasmoa onartu dira. Zuzendaritza ere berritu dugu. Azken urteetan Talde Eragileko kide izan diren **Helena Franco**, **Iñaki Gonzalez Murua** eta **Esti Sarrionandiari** egindako lana eskertu diegu. Bestetik, Talde Eragileko kide izateko **Mila Amurrio**, **Pauline Guelle** eta **Anjeles Iztueta** hautagaitzak onartu ditu batzararak.

MARKESKOAREN HITZARMENA LUZATU DUGU

Eibarren dagoen Isasi-Markeskua jauregiaren lagapen-hitzarmena sinatu dute Miguel de los Toyos Eibarko alkateak eta Kepa Sarasola UEUko zuzendariak beste bost urterako. 2000. urteko azaroan Markeskua hutsik jaso genuen eta 20 urte hauetan, apurka-apurka UEUren Ikastetxe Nagusi bihurtu eta espazioak egokitzen joan gara. Une honetan eraikina jardueraz bete dugula esan genezake (berezko tituluak, graduondokoak, urtean zeharreko ikastaroak, irakasleriaren formazioa, Udako Ikastaroak, jardunaldiak, haur-eskoletako hezitzaileentzako formazioa, IkerGazte, Txiolesia, Juan San Martin beka...). UEUK epe luzeagorako konpromisoa eskatu dio Eibarko Udalari eta lehenbailehen hasi nahiko genuke hitzarmen berria lantzen, UEUK dituen erronkei aurre egin ahal izateko ezinbestekoa baitugu.

UEUREN 50. URTEURRENA

2022. urtean UEUren Udako Ikastaroek 50 urte beteko dituzte, eta urteurren hori helmugan izanik, aurten datozen bi urteetako plangintza diseinatu dugu, barnera eta kanpora begira. Urteurrenaren batzordea martxan jarri dugu eta bertara gonbidatu ditugu parte hartu nahi duten bazkideak. Uztailean, urrian eta abenduan egin ditugu bilerak plangintza zehazteko.

HUMANITATE DIGITALEN LERROA INDARTZEN


Errenteriako Udalarekin elkarlan-hitzarmena berritu dugu Errenteriako Torrekua eraikinean Humanitate Digitalen Inguruko Ikerketa Gunea kokatzeko. Bertako helburu nagusiak Euskal Herriko eta atzerriko eragileen saretzean aurreratu eta lankidetzan jarduteko baldintzak sortzea dira. Horrez gain "Humanite Digitalak, Generoa eta Artea" eta "Humanitate Digitalak Euskal Herriak" III. Jardunaldiak antolatu ditugu, "Posthumanismoaz, Posthumanismoaz" izenburupean.

Bestetik, Euskal Wikipediako Kultur Elkartarekin (EWKE), Humanitate Digitalen inguruko euskarazko ikerketa sustatzeko hirugarren deialdia egin eta bi poltsa esleitu ditugu.

Azkenik, GOI Ikastegi Atxikiaren bitartez, 2021/2022 ikasturtean "Humanitate Digitalak, aukera berriak ikertzen" unibertsitateko aditu-titulua eskaini dugu.

SAILBURUEN BILTZARRA

Abenduan egin dugu Sailburuen Biltzarra. Bertan, UEUko sailen eta egituraren arteko koordinazioa landu, esku artean dauden proiektuak eztabaidatu eta sailen arteko harremanak sustatu ditugu.



JOSE RAMON ETXEBARRIA, LEKUONA SARIDUNA

Jose Ramon Etxebarría irakasle, euskaltzale eta UEUko bazkideari eman diote Eusko Ikaskuntzaren 2020. urteari dagokion Manuel Lekuona saria. Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuonasaria 1983ansortuzen Euskal Komunitate Globalarentzat ekarpen garrantzitsua izan zitekeen lana egin duten pertsonen aitortpena egiteko. Ondo merezitakoa, Jose Ramon!



JARDUERA AKADEMIKOA

IKASTURTEAREN HASIERA-EKITALDIA

Irailean egin dugu 2021/2022 ikasturtearen irekiera-ekitaldia Eibarren, Kepa Sarasolak gidatuta. Hitzaldi nagusia Uxo Iñurrietak, Humanitate Digitalak graduondokoaren zuzendariak, eta Xabier Landabideak, UEUko Humanitate Digitalen arduradunak, eskaini dute, “Humanitate Digitalak: diziplinak elkarriketan” izenburupean.

IKASGELA BIRTUALA BERRITU DUGU

Aurten Moodle plataforman dugun ikasgela birtuala berritu dugu. Bertatik eskaintzen ditugu gure onlineko ikastaro guztiak. Itxura-aldaketarekin gune irisgarriagoa lortu dugu, eta funtzionaltasun berriak ere martxan jarri ditugu. 3.10 Moodle bertsio berriarekin ikasgela birtuala erabilerrazagoa da eta funtzio berriak ahalbidetu ditu, besteak beste, ikus-entzunezko eduki interaktiboan erabileraren integratua.

ESKAINITZA PROPIOA

UEUk bere neurrira egiten duen eskaintza da eta bizitzan zeharreko prestakuntza euskaraz eta kalitatez eskaintzea du helburu nagusi.

Udaberriko eta udazkeneko ikastaroak

Guztira 26 ikastaro eskaini ditugu Eibarren, Iruñean eta ikasgela birtualaren bitartez. Landutako gaiak askotarikoak izan dira: ahalduntze-ikastaroa, diziplina positiboa, bideogintza, eskola naturan hezi, sexu-hezkuntza, diskalkulia, komunikazioa hobetzen, bizitzaren amaieran arreta, *scape room* digitala...

Udako Ikastaroak #UI49 #ElkarEkin

Guztira aurrez aurreko 27 jarduera eskaini ditugu. 6 hiri desberdinetan eman ditugu eskolak: Baiona, Laudio, Donostia, Eibar, Iruñea eta Usurbilen. Landutako gaiak askotarikoak izan dira: Akademia eta herrigintza, Pedagogia feminista, Pandemia eta zuzenbidea, Euskalgintza irudikatzen, Krutwig, Desazkundea... Hainbat eragilarekin antolatu ditugu ikastaroak, UEUko sail eta zenbait elkarte eta erakunderekin: Bertsozale Elkartea, 500 Urte Noingo Bataila, GEZKI taldea, Kontseilua, LAB, Hizkuntzalaritza Teorikoki Taldea, ALDEE, Baionako Mediateka, ASNABI, EWKE, Iratzar Fundazioa, IKAS, Euskal Hirigune Elkargoa, Hendaia Herriko Etxea, Mintzalasai Elkartea, EEP, NEIKER, Aiaraldea Ekintzen Faktoria, JAKIN, Usurbilgo Udala eta EHU.

Tartarika zikloa

UEUk eta Ipar Euskal Herriko Eusko Ikaskuntzak "Akademiatik Tartarika" hitzaldi-zikloa martxan jarri dugu hilean behin unibertsitate-gaiak Ipar Euskal Herriko gizarteari hurbildu eta eztabaida sustatzeko helburuarekin. Hauek dira aurtengintza hitzaldiak:

- "30 urte mihigintzan" Txerra Rodriguez. Aurkezlea: Oihana Zamponi.
- "Erleetaz solasean" Martxel Aizpurua eta Mizel Setoain. Aurkezlea: Pauline Guelle.
- "Bertsolaritza, feminismoa eta ahalduntze kolektiboa". Miren Artetxe. Aurkezlea: Oihana Zamponi.
- "Espetxe barneko zuzenbidea: azterketa konparatu bat". Joana Falxa. Aurkezlea: Pauline Guelle.



HITZARTUAK

Hirugarren eragile batekin adostutako eskaintza da.

PREST_GARA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntzarako atertzen duen deialdia. Gaiak, iraupenak, tokiak, formatuak... deialdian datozenak dira eta guk egitarauak osatzen ditugu, horretarako UEUren inguruan lanean dabiltzan profesional-sare aberatsa daukagu. 14 ikastaro eskaini ditugu aurtengintza eta bertan landu ditugun gaiak hauek izan dira: hizkuntzak lantzeko teknologiak, irakurketa erraza, gorputz-hezkuntza eta desgaitasuna, dantzak, aniztasunari erantzuna, kudeaketa emozionala...

Nafarroako Unibertsitate Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuarekin elkarlanean

Elkarlan honen hirugarren urtea izan da. Guztira 15 ikastaro eskaini ditugu. Aurtengo lan-ildoak, genero-berdintasuna bultzatuko duten formakuntzak, hizkuntza zein euskararen ahozketasuna landuko dituztenak, Pedagogia arloko metodologia berritzaileak (digitalak barne), emakumeen bokazio zientifikoa (STEAM), administrazio eta enpresen mundura bideratutakoak eta osasun-alorreko ikastaroak izan dira.

OIHANEDER Euskararen Etxearekin elkarlanean

Bi erakundeok lankidetzaz hitzarmena dugu 2017. urtetik, eskaintza euskara oinarri hartuta (hizkuntza, hizkuntzalaritza, filologia, soziolinguistika) diseinatzeko da eta UEU Gasteizen bere tokia egiten dabil. Aurtengintza bi ikastaro antolatu ditugu Gasteizen, haien egoitzan: "Hitz Adina Mintzo" eta "Euskararen ahozkeraren laborategia".

Haurreskolen partzuergoa

Haurreskolen partzuergoarekin elkarlanean 36 ikastaro eman ditugu, haur-eskoleko hezitzaileen barne-formaziorako propio sortuak. Hezkuntza-proiektuaren garapena, Adimen emozionala, Haurreskolen garapen integrala, Hezkidetzaz, Hezkuntza-premia bereziak eta Lidergoa eta pertsonen kudeaketa izan dira eskaini ditugun ikastaroak.

Ikergazte 2021 Gasteizen

Euskal Herri guztiko ikertzaileak bildu dira ekainaren 9, 10 eta 11n Gasteizko Europa Jauregian egindako Ikergazte kongresuaren laugarren edizioan. 150 komunikazio aurkeztu dira eta 200 pertsonak parte hartu dute. Lau hitzaldi nagusi izan ditu kongresuak: *"What is feminist research in art history?" Katy Deepwell* (Middlesex Unibertsitatea); *"Hizkuntza teknologiaren bilakaera: IXA taldearen esperientzia. Erabili zientzia gure gizartearen alde"* Arantza Diaz de Ilarraza (UPV/EHU, UEU); *"Datuen zientziak COVID-19aren aurkako borrokan"* Nuria Oliver (Telekomunikazioetako ingeniaria eta Inteligentzia Artifizialeko doktorea) eta *"Biomaterial eta material biologikoen propietate fisikoak"* Eneko Axpe (Marie Curie doktore osteko ikertzaile bekaduna Stanford University-n, NASA, UPV/EHU).



UNIBERTSITATE-MAILAKO PRESTAKUNTZA

MASTERRA

I2021/2022 ikasturtean **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterraren** bigarren edizioa egin dugu UPV/EHUren ikastegi atxiki bezala (GOI), online unibertsitate-ikasketak euskaraz sustatzeko asmoz. Euskaraz izan da (ingelesezko hautazko batzuekin) eta eskolak ikasgela birtualaren bitartez eskaintzen ari gara hiru espezialitate hauetan: *Natur Zientziak eta Matematika, Giza eta Gizarte Zientziak*, eta *Hizkuntza eta Literatura*. 132 ikaslek parte hartu dute.

JARDUNALDIAK

Guztira 12 jardunaldi antolatu ditugu: 6 urtean zehar, 5 udakoetan eta 1 Torrekua egitasmoaren barne. Guztira 510 partaidek parte hartu dute.

- Udazken-neguan: Euskal Kultur Sorkuntza (irailean, uztailetik atzeratuta); LUHI IV (urtarrilean, udazkenetik atzeratuta); Komunitateak ehuntzen (otsailean, azarotik atzeratuta).
- Udaberrian: Natur Zientziak IV (apirilean, azarotik atzeratuta); Gatazkaren irakurketa feminista (maiatzean); IkerGazte2021 (ekainean, maiatzetik atzeratuta).
- Udakoetan: Akademiatik herrigintzara (ikasturtearen hasiera-ekitaldia); Euskaigintza eta Ekonomia Soziala II (GEZKI); IDBK V (ALDEE); Hizkuntzalari Euskaldunak V; Krisi ekologiko, klimatiko... (Jakin jardunaldia).
- HDgunea-Torrekua egitasmoaren barne-jardunaldi bat egin genuen, HDEH2020 (abenduan), guztiz online.

GRADUONDOKOAK

EHUren berezko titulu eta aditu-tituluak sustatu eta kudeatu ditugu:

Berezko tituluak

- IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan, etengabeko formakuntzan, eta hizkuntzen irakaskuntzan (HEZikt).

Aditu-tituluak

- Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa.
- Hezkuntzarako Baliabide Digitalak: Aukerak eta Arriskuak jendartean.
- Ikerkuntza Digitala eta IKTak.
- IKTak eta Konpetentzia Digitalak Eskolan, Unibertsitatean eta Enpresan.



IKASLEEN PROFILA

UEUren jardueretan ohikoa den moduan, emakumeen presentzia handia da, 10etik 7koa.

Partaideek 39 urteko batez besteko adina dute. 21-30 adin-tartekoek partaideen heren bat osatu dute aurten, IkerGazteren eraginez.

Ohikoa den moduan, partaide gehienak gipuzkoarrak dira. Aipatzekoa da, nafarren proportzio handiena Nafarroako eskaintzan metatzen dela. Aldiz, Ipar Euskal Herriko biztanleen proportzio handiena Udako Ikastaroetan metatzen da, aurten partaideen % 13,8 izan dira, nafarrak baino ia 4 puntu gehiago. Arabarren kasuan, Oihanederreko eskaintzan metatzen dira.

Partaideen % 80 langileak dira, eta horien artean, % 57 irakasleak. % 33 bestelakoak ataleko profesionalak dira eta % 10 administrazioko langileak. Ikasleei dagokienez, aurreko urteetan baino proportzio handiagoan hurbildu dira.

Partaideen % 88k unibertsitate-mailako ikasketak dituzte, horietako hiru laurden (% 75) lizentziatu edo graduatuak eta % 10 doktoreak.



IKERKETA

UEUren papera ezberdina da, beka ematen duen erakundearen arabera:

- **Juan San Martin beka (Eibarko Udala).** Deialdia 2021ean egin da eta aukeratutako gaia Filosofia izan da. Eduardo Apodaka, Joseba Gabilondo eta Mitxelko Urangak irabazi dute beka *Globalizazioaren ondorenaz: apokalipsia, egia-ostea eta subjektuaren autonomia proiektuarekin.*
- **Humanitate digitalak ikertzeko bekak (Euskal Wikilarien Kultur Elkartea beka EWKE).** EWKEekin elkarlanean (Euskal Wikilarien Kultur Elkartea) bi bekarako deialdia egin dugu aurten. Hauek izan dira sarituak: Maite Luengo eta Marina Arranz, *EMARTISTAK 2000-2020: Wikipedian euskal emakumezko artisten presentziaren analisia eta ikusgarritasun interbentzioa* eta Nagore Ipiñak zuzendutako taldearen *TxikiHezi: Unibertsitateko irakaslegaiak Lehen Hezkuntzako ikasleak matematika arloan (Txikipedia) Humanitate Digitalen bidez trebatzeko proposamen baten diseinua eta balidazioa.*





ARGITALPENGINTZA


14 LIBURU BERRI ARGITARATU DITUGU

Hauek dira aurten argitaratu ditugun liburuak:

- Ikergazte kongresuko artikuluen bilduma (5 liburu)
- *Berrien Idazkera. Albisteak lantzeko oinarritzko eskuliburua*
- *Online-irakaskuntza hobetzeko dekalogoak*
- *Latinoamerikaren zain urratuak*
- *Bi hizkuntza garun bakarrean. Euskal psikohizkuntzalaritzaren ekarpenak eta erronkak*
- *Medikuaren oinarritzko gaitasun profesionalak*
- *Kimika Lehen Hezkuntzako Gradu ikasleentzat eta irakasleentzat*
- *64 begirada xake-taularen zuri-beltzetan*
- *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte*
- *HTML5 lengoia eta JavaScript APIak*

UZTARO ALDIZKARIA

Giza eta gizarte-gaiak lantzen dituen aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditugu aurten (116-119 zenbakiak).



ALDIRI ALDIZKARIA

ALDIRI. Arkitektura eta Abar aldizkariak 12 urte ondoren bere ibilbidea amaitzea erabaki du. Eskerrik asko guztiagatik!

- *Aldiri 43.* Etxebizitzaz
- *Aldiri 44.* Nora goaz?
- *Aldiri 45.* Epilogo (portada guztien postalekin)

OSAGAIZ ALDIZKARIA

UEUk eta Osasuna Euskalduntzeko Erakundeak elkarlanean Osasun Zientzien aldizkari elektronikoa argitaratzen dugu: OSAGAIZ. 2021ean hiru zenbaki kaleratu ditugu.

UNIBERTSITATE-MAILAKO IKASMATERIALAK SUSTATZEKO DEIALDIA ETA DIRU-POLTSAK

UEUk liburugintzako deialdia egin du. Deialdiaren xedea euskarazko unibertsitate-liburuen sorkuntza sustatzea da eta edukien kalitatea bermatuko duen bide eraginkorra proposatzea. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, UEUk unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko hiru diru-poltsaren deialdia egin du. Poltsa bakoitzaren iraupena gehienez urtebetekoa da eta diru-zenbatekoa 3.000 eurokoa. Jakintza-alor guztietara irekita dagoen deialdia da. Hauek izan dira irabazleak:

1. *Laborantza Agroekologikoa ziurtatzeko berme-sistema parte-hartzailea EHKOlektiboan* (Leire Rodriguez Zubiaurre, Josebe Blanco Alvarez, Aintzira Oñederra Aramendi, Miren Sierra Basterra).
2. *Zenbaki arruntaren eraikuntza eta aritmetika Lehen Hezkuntzako irakasleentzat* (Aitzol Lasa Oiarbide).
3. *Teknopedagogia praktikoa. Teknologia digitala hezkuntza integratzeko ereduak eta diseinu didaktiko digitala* (Amaia Arroyo Sagasta).

BURUXKAK LIBURUTEGI DIGITALA

Buruxkak liburutegi digitalaren helburua da UEUk argitaratu dituen liburu, aldizkari eta doktorego-tesiak biltzea eta euskarri elektronikoan unibertsitario euskaldunei eskaintzea, ikasteko, irakasteko, irakurtzeko eta ikertzeko erabil ditzaten. Aurten, edukiak online jartzeaz gain, gure liburu eta artikuluen egileei elkarrizketak egin dizkiegu: Xabier Landabidea, Ines Erkizia, Andoni Duque, Irantzu Ibañez, Leire Amenabar, Maitane Arnoso, Iñaki Alegria, Alazne Aiestaran, Jose Mari Pastor, Susana Conejero, Gari Berasaluze eta Maialen Berridi.



SARAKO AZOKAN EGON GARA

Urtero bezala, Sarako azokan egon gara apirilean gure argitalpenak ezagutzera emateko asmoz.

DURANGOKO AZOKA #56DA

56. edizioa izan da Durangokoa, eta urtero bezala, UEU bertan izan da. UEU unibertsitate-mailako euskarazko produkzioan aitzindaria den heinean, ezinbestekotzat jotzen dugu urtero-urtero bertan egotea. Liburuak saltzeaz gain, UEU eta bere lana ezagutaraztea da gure helburua azokan. Betiko moduan, liburu-egileek, UEUkideek eta lantaldeak bete dituzte txandak. Era berean, aurten hiru libururen aurkezpenak egin ditugu: **Medikuaren oinarritzko gaitasun profesionalak** (Maialen Berridi Agirre); **Latinoamerikaren zain urratuak** (Eduardo Galeano. Itzulpena: Iñaki Alegria Loinaz) eta **64 begirada xake-taularen zuri-beltzetan** (Gari Berasaluze Ostolaza).

Horretaz gain, UEUren 50. Urteurrenaren irudia bertan estreinatu dugu, salgai jarri dugu poltsa, eta liburu-markagailuak banatu ditugu.



INFORMAZIO- & KOMUNIKAZIO- TEKNOLOGIAK

TESIKER

INGUMA katalogatutako 915 tesietatik, Tesiker egitasmoaren bitartez, 658 sarean eskuragarri daude Euskarazko Doktorego Tesien Datu Basean elkartuta. Euskaraz egin diren tesien % 70. Egitasmoaren jardunak bi mutur ditu: tesi zaharrak digitalizatzea eta gordailu digitaletako tesiak biltzea. 2021ean 4 tesi digitalizatu eta gordailuetatik 50 tesi bildu dira.

ARTIZARRA SARE SOZIALA, KOMUNITATEA TRINKOTZEN

INGUMA datu-basean oinarritzen da eta LinkedIn sare profesionala zein Google Scholar, ORCID edo Research Gate ikertzaileen guneak ditu inspirazio-iturri. Komunitate zientifiko-tekniko euskalduna ezagutaraztea eta ikertzaile zein profesionalen saretzean laguntzea da ARTIZARRAren helburu nagusia. 1.000 partaideko langa pasatzea lortu dugu aurten.

UNIBERTSITATEA.NET ATARIA

Euskal ikertzaileek egiten duten lana gizarteratzeko konpromisoarekin jarraitzen du unibertsitatea.net atariak, eta euskal ikertzaile gazteak elkarriketatzen jarraitzen dugu. Guztira, 25: Iranzu Laura, Maialen Sebastian de la Cruz, Onintza Etxebeste, Aitor Cevitanes, Alazne Irigoien, Ana Novoa, Oihane Mendizabal: Aimar Santos, Maite Luengo, Iera Hernández, Martin Ladrón de Guevara, Joanes Lameirinhas, Alain Garmendia, Ainize Odriozola, Aitziber Elejalde, Ander Reizabal, Oxel Azkarate, Ioar de Guzman, Uxue Sanchez, Yurena Polo, Maria Dosil, Julen Astigarraga, Lucía Gandarias:, Manu Araolaza eta Jon Zabala.

INGUMA DATU-BASEA

INGUMAK 21. urteko ibilbidea egin du, egitasmoa hazten eta aberasten jarraituz. 2021ean, besteak beste, 575 egile berriren produkzioa barneratu eta 1.343 erreferentzia katalogatu ditugu, horietatik % 79 idatzizko lanen datuak izan dira. INGUMAn 45.202 produkturen datuak (liburuak, itzulpenak, artikuluak, liburu-atalak, hitzaldiak, ikastaroak...) ditugu eskura eta 20.290etik gora erreferentziaren edukia zuzenean kontsulta daiteke.



BAIONA

Arsenal plaza 1
64100 Baiona
iparraldea@ueu.eus

BILBO

Erribera kalea 14, 1D
48005 Bilbo
T +34 94 679 05 46
ldazkaritza@ueu.eus

EIBARREN

Markeskoa, Otaola 1
20600 Eibar
T +34 943 82 14 26
markeskoa@ueu.eus

IRUÑEAN

Joaquin Beunza 13, behe
31014 Iruñea
T +34 948 36 25 63
nafarroa@ueu.eus
